

Mirandaolako erakustaldian Rufino Aranburu olagizona lanean. MIRIAM LUKI

Legazpi » Jose Antonio Azpiazu historialari eta antropologo legazpiarrak 'Legazpi eta olagizon euskaldunak' hitzaldia egin du, Legazpi, 400 Urtez Aske Batzordeak antolatutako ekitaldian.

Burdinoletako aitzindariak

MIRIAM LUKI

Olagizonak burdinoletako itzaletatik atera nahi izan zituen Jose Antonio Azpiazuk herenegungo *Legazpi eta olagizon euskaldunak* hitzaldian. Azpiazu historialari eta antropologo legazpiarrak esan zuenez «XX. eta XXI. mendeetan bizitzea egokitu zaidan arren, bizitza erdia pasatu dut XVI. mendean». Hitzaldiaren helburua olagizonen egunerokotasunean zeuden argi, jakinahi eta mugimenduaren berri ematea zen, bide batez burdinaren langileak itzaletatik ateraz. Izan ere, Azpiazuren esanetan, «olagizonen bizitza ez zen burdinolan amaitzen, hori da eraitsi nahi dudana mito».

Azpiazuk burdinolei eta olagizonen buruzko liburua idatzi du, Lenbur Fundazioarekin batera. Orain liburua itzultzen ari dira, eta denbora gutxi barru lana aurkezteko moduan izango dira.

Platonen Kobazuloaren Mitoari jarraiki, Azpiazuk olagizonak burdinoletan bizitza guztia ematen zutela uste ohi dela esan zuen. Platonen mitoan bezala, errealitatea euren itzaletan soilik ikusiko balute bezala. «Hori da behintzat gure aurrekoei ezarri diegun irudia».

Burdinolaz harago

Olagizonen bizitza, ordea, burdinoletako mugetatik kanpo «oso aberatsa» zen. «Euskaldunoi agrafoak izan garela egotzi digute, eta gure bizimodua ez dugula azaldu

ere esan digute». Jauntxoek historia kontatu da akaso, baina herriaren historia ez, eta horri heltzeko dokumentu ugari daudela esan zuen Azpiazuk. «Auzi ekonomikoek dagozkien dokumentu asko dago, eta horietan historia idazteko xehetasun eta datu asko aurki daitezke. Olagizonen, gainera, euren negozioetako datuak idatzi egiten zituzten».

Mundu tekniko zabala

Burdinolak sistema konplexua hartzen zuten teknikari dagokionez. «Esan ohi da ehun bat lagunek lan egiten zutela burdinolaren adar desberdinetan». Gaur egungo industriaren «protoindustria» zen. Euskal olagizonak etengabe kanpora begira zeudela ere esan zuen Azpiazuk, eta horren froga dela kanpotik ekarri zituzten sistema tekniko berriak, garai hartako teknologia berriak, alegia.

Aberastasuna ardo egiteko mahatsetan eta garitan zenbatzen zen XVI. mende hartan, Gaztela zen jaun eta jabe. Euskal Herrian ez zegoen neurri horretako aberastasunik. Baina Toledoko ezpata balioetsuak, adibidez, Arrasateko altzairuarekin egiten ziren. Burdinolan neurtzen ziren Euskal Herriko ondasunak: egur, meategi eta errektan aberats ziren.

Erreken indarra modu onenean probesteko, adibidez, teknologia behar zuten, eta haren bila itzaletatik ateratzeko gai izan ziren euskal olagizonak.

Turismo bulego berria aurki irekiko dute Areizaga plazan

Urretxu-Zumarraga

Bi herrien arteko elkarlan markoari jarraituz turismo bulegoa irekiko dute, udako bisitariak hartzeko.

M. LUKI

Areizaga-Kalebarren plazan irekiko dute aurki Urretxu-Zumarragako turismo bulego berria. Bi herrietako udalen elkarlanaren emaitza da egitasmoa.

«Bi herrien artean lantzen ari garenean elkarlan markotik gai batzuk ateranahi izan ditugu lana aurreratzeko asmoz, tartean turismoa eta merkataritza. Turismo gehien dagoen denboraldia hasi da, eta turismo bulego bat behar

genuela argi ikusi genuen iaz», dio Iñaki Zabala Urretxuko alkateak. Anton Arbulu Zumarragako alkatearen ustez, «plangintza estrategikoak definituko digun garapen garrantzitsuen lehenengoetako urratsa» da bulegoa, «guztion esfortzuak bat egiteko bidearen hasiera. Bulegoaren bitartez gure eskualdearen potentziala garatu ahal izango dugula uste dugu».

Bisitariak, galduta


Zabalak 12 bisitari bat baino gehiago herriko kaleetan «noraezean» ikusi zituela dio. «Kostaldera etortzen dira asko eta asko, baina hondartzara joateko eguraldirik egiten ez duenean barrualdera datoz, eta guk horretarako prest egon behar dugu».

Turismo bulegoaren ideia orduan sortu zitzaizela dio Zabalak. Datorren asterako irekitzea espero dute, Urretxuko alkateak esandakoaren arabera. «Une honetan INEMekin lanean ari gara eta beraien bitartez kontratatuko ditugu bulegoko langileak». Printzipioz udako denboraldian egongo da irekita bulegoa; «urritik aurrera akaso ez du zentzurik izango».

Bertako produktua

Turismo bulegoan bertako produktua eta turismo baliabideak emango dituzte ezagutzera.

Bien bitartean, Urretxuko Udalak Lenbur Fundazioari herriko baliabide turistikoak modu eraginkorrean ustiatzeko proiektu bat egiteko eskatu dio.



Areizaga Kalebarren plazan irekiko dute Urretxu-Zumarragako turismo bulego berria. MIRIAM LUKI

Laburrak

Mattin Osinaldek irabazi du logotipo lehiaketa

URRETXU » Urretxuko herriaren irudi berria sortzeko lehiaketa Mattin Osinalde legazpiarrak irabazi du. Zumarragako jaien ondoren emango diote 1.500 euroko saria. Ikastetxeetako gaztetxoentzako lehiaketa berezia egin dute. Lehen Hezkuntzako artean Irati Osesek eta DBHn Ibane Cerezok irabazi dituzte aurreneko sariak. Lehenengoari oparia eta bigarrenari 150 euro emango dizkiete uztaileko sari banaketan.

San Joan erronda egingo dute gaur gauean Legazpin


LEGAZPI » Santikutz abesbatzak eta Alaitasuna errondailak San Joan erronda egingo dute gaur gaueko hamaiketatik aurrera Legazpiko kaleetan.

Marrazketa ikastaroari etzi emango diote hasiera

LEGAZPI » Etzi hasiko dute uztaileko marrazketa ikastaroa Legazpin. Izena emandakoek 10:30ean egon beharko dute prest kultur etxeko beheko solairuan.

PREMANK
PREBENTZIO KANPOKO ZERBITZUA

- Bezeroarenganako hurbiltasuna



Argixao poligonoa, 55 pabillioia
Tel.: 943 72 41 00
20700 ZUMARRAGA

GURE LANAK PREBENTZIOA DUTE HELBURU

ERAIKI

mecanizados, s.l.

Argixao Poligonoa -7.Pabillioia
7. Buzoia

Tel.: 943 72 51 89

Faxa: 943 72 08 70

20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)